


# berria

Bizigiro ➤

## Hizkuntza hesirik gabe (ia)

Android sistema duten sakelako telefonoentzat Mitzuli itzultzaile automatikoa sortu du IXA taldeko Mikel Artetxek. 50 itzulpen noranzko eskaintzen ditu.



Ahotsaren bidez eta testu bati argazkia aterata itzulpenak automatikoki eskaintzen ditu Mitzuli aplikazioak. BERRIA

2015-05-09 / Urtzi Urkizu

**D**emagun pertsona bat atzerriko herrialde batean dagoela, turismoa egiten edo lan kontuengatik. Demagun herrialde horretako hizkuntzan ez duela piperrik ulertzen. Norbait joaten zaiola, hitz bat esan, eta erantzun nahi diola. Konponbidea eman diezaioke istant batean Mitzuli aplikazioak. Esate baterako, Errumanian herritar batek errumanieraz hitz egin, eta aplikazioak ahots sarreran gaztelaniara itzuliko dio. Gaztelaniatik euskarara gero, nahi izanez gero. Edo euskaraz hitz bat esan, eta ingelesez ahoskatuko dio telefonoak hitz hori. Androiderako itzultzaile librea da Mitzuli. 50 itzulpen noranzko baino gehiago eskaintzen ditu aplikazioak, eta horien artean hirutan ageri da euskara: gaztelaniatik euskarara, euskaratik gaztelaniara eta euskaratik ingelesera.

Ahotsaren bidezko itzulpenaz gain, kamera bidezko sarrera eskaintzen du aplikazioak. Hau da, afixa bat, menu bat, liburu, egunkari edo aldizkari bateko testuari argazkia atera, eta Mitzulik itzuli egiten du.

IXA taldeko Mikel Artetxe informatikariak (Zarautz, Gipuzkoa, 1992) sortu du Mitzuli. Bi urte inguru pasatu dira proiektuarekin hasi zenetik. Nabarmendu duenez, baliabide gutxien duten hizkuntzetan jarri du arreta, «izaera komertzialeko produktuek albo batera utzi ohi dituzte eta». Itzulpen noranzkoen zerrendan sartu ditu horregatik, euskaraz aparte, afrikaansa, aragoiera, asturiera, daniera, errumaniera, galiziera, hindia, indonesiera, katalana, kroaziera, malaysiera, nederlandera, okzitania, suediera eta urdua. Edonola ere, frantsesa, ingelesa, portugesa, gaztelania eta italiera ere zerrendan daude. Baita esperantoa ere. «Alemana sartzeko eskaera dezente jasotzen ari naiz», esan du informatikariak.

Baina Mitzuliren itzulpenak egitea posible da beste proiektu batzuetan oinarritzen delako. Apertium itzultzaile automatiko librean oinarritzen da hizkuntza bikote gehienak eskaintzeko, gaztelania-euskara eta ingelesa-kroaziera bikoteetarako izan ezik; Apertiumen lanean aritu zen Artetxe. Gaztelaniatik euskarara itzulpenak eskaintzeko Matxin itzultzaile automatikoa erabiltzen du aplikazioak; IXA taldeak garatu zuen Matxin —Elhuyarren laguntzaz—, euskararekin lan egiten duen eta publikoki erabilgarria den lehenengo itzulpen automatikoko sistema. Euskaratik gaztelaniarako itzulpena Apertiumen oinarritzen da. Abu-MaTran Europako proiektua ere goraiatu du Artetxek; Dublin City Unibertsitateko CNGL taldeko ikerlariei esker, ingelesa-kroaziera bikoteko itzulpenak eskaintzen ditu.

### **Atzerrian erabilgarri**

Aplikazioari «lehen bultzada» Euskal Herrian eman nahi diote, baina beste herrialde batzuetan zabaltzea espero dute, kontuan hartuz hizkuntza gutxiagotu batzuetako hiztunek erabil dezaketela. «Penintsula Iberikoko hizkuntza guztiak

Berria.eus - Euskal Editorea S.L.  
Telefona: 943 304 030 • Faxe: 943 590 172  
Helbide elektronikoak: Webgunea: webgunea@berria.eus |  
Publizitatea: publi@bidera.eu  
Harpidetza: harpidetza@berria.eus

Lege Informazioa | Pribatutasun politika |  
Cookieak | Publizitatea  
© Creative Commons lizentzia



**berria**  
taldea

**berria**

**bidera**  
zerbitzuak

www.euskalherriko  
**plaza.com**

**Mauka**

**BADOK**

**HITZA**



**Hamaika**  
telebista

**iragarkilaburrak.com**



**ALEA**  
BERRIAK